

Hedadura: 6 Km2

Biztanlegoa: 170 biztanle

Jaiak:

■ Herrikoak: Abuztuaren 15ean, Andra Mari Jasokundekoa.

biur errekaak zeharkatzen duen ibar-aren ekialdeko hegalean lekutzen da udal-erri hau, Ikaztegieta, Alegi, Amezketa, Abaltzisketa, Gaintza, Baliarrain eta Legorre-ta inguruan biltzen zaizkiola.

Antzinako herrixka haul agiri-iturrietan Orindain, Olendain edota Olandain izenez izendatzen dena, Teobaldo I. Erregeak beste zenbait herrixkarekin batera Toda Rodriguez Andereari eskaini zion 1234ean Korteko hiribildu eta gazteluaren truke. Orendaingo biztanleek erregearentzat burututako zerbitzuak arazoizat hartuaz trukea gauzatzea eragotzi zuten, gainera 1244ean erregetzaren pribilegioa eta zergak murriztea lortuaz.

Mendebete baino gehiago igarora zelarik, bere gogoz Tolosari lotu zitzaion, bere ondasun eta lur-barrutiei eutsiaz eta nolabaiteko administrazio-autonomiaizanik.

Gune txiki honek ez du hiribildutasun mailarik 1615era arte eskuratuko; urte horretan Felipe III.ak titulua luzatu zion zehazturiko kopurua ordaindu ondoren, zera, biztanle bakoitzeko 25 dukat, guztira 510 biztanle izanik.

Udal ordezkaria Biltzarretan izateak eragiten zituen gastuei aurregin ezin zielarik, 1625ean Ikaztegieta eta Alegiri batu zitzaion, Aizpuruako Batura osatuaz. Handik urte batzutura Altzo bildu zitzaion.

Geografikoki duen kokaguneak eta lurganadutzari ernana egoteak hasiera-hasieratik Bozue Handiko Baturaren partaide izatea bideratu zuen, Enirio-Aralarko mendien baterako ustiapen eta probetxamendurako sortua.

Azken parteko Orendainen historian 1967an Ikaztegieta eta Baliarrainekin batera

Iruerrieta udalerrri berriaren sorrera aipatu behar da. Beren lurra batu eta baliabide ekonomikoak batean ustiatzearekin udal administrazio modernoaren egitekoak zorrotasun handiagoarekin bideratzea lortu nahi zen. Batura honek urte gutxira arte bizi-rik irau du.

HIRIGUNEA

Orendaingo biztanlegunea, batik bat, barreiatuak lekutzen diren baserriek osatzen dute. Erdigunea Parrokiaren bueltan biltzen da, dozena bat etxek osatzen dutena. Inguruan buru eginaz lekutzen da, gune honetatik beste zenbait herrixkaren kokalekua begitantzen delarik, eta are ikusgarriagoa dena, ifarrean Ernio eta Uzturre mendiak ikusten dira eta hegoan Aralarko mendi-bularrak.

Gune honek duen baliorik handiena inguruko paisaia bada ere, esan beharra dago hiri-multzoa oso modu bikainean egokitzen zaiola inguruari eta badituela gainera, arkitektura-testigantzainteresgarriak.



Jasokundeko Andra Mariaren parroki-eliza.



Udaletxea.



Hirigunearen ikuspegi orokorra.

■ Jasokundeko Andra Mariaren Parroki-Eli-za (30-48)

Eliz-etxeak eta udaletxeak Orendaingo arkitekturaren goigunea osatzen dute. Eliz-murrua **hainbat** kilometro lehenagotik begitantzten da. Oinplanoa angeluzuzena da eta kanpandorra du. Kanpoaldean ez du eraikuntzari dagokionez ezaugarri adierazgarriak erakusten. Barreanean, atzeko aldean **Zen**-bait kapitel ikusgarri gorde dira.

■ Udaletxea (30-47)

Joan den mendekoa da udaletxea, **estilo** neoklasikorik garbienekoa. Aipagarria da ezaugarri hau eta are aipagarriagoa dagoen lekuan egonda, baserri estiloko eraikuntzak bait dira nagusienak. Fatxada bost **ataletan** sailkatzen da. Erdiko hiruak frontoi batek burutzen ditu eta bertan herriko armarriria kokatzen da.

■ Bertan lektuzearen lehen fase bateko aztarnak Iramendi baserriko gela **batean** gordetzen dira (30-46), hau antzinako baserri baten harrien gainean eraiki bait **Zen**, ordukoa, arku zorrotzpean zabaldutako **sarrera** polit bat delarik.

Bestelako baserriak tipologia aurreratua goei dagozkie, XVII-XVIII. mendeetakoak, Barberoetxe (30-49) esate baterako.

Aita-Eskolapioen eskola-komentu baten berri ere **eman** behar dugu (30-56); eraikuntza hau lurraren goibeheetara egokitzen da, Orendaingo hiri garapenaren sailik behekoen eta berriena osatuaz.

Hilerria ere (30-45) gune interesgarria da. Garai modernoan kokatzen bada ere, hilarri borobilei uztarturiko hilobi-tradizioa azaltzen du, gorenaldia iraganeko garai historikoetan izan zuelarik.

Orendainera bertaratzea, antzinako Galzadaren igarobidea fosildu duen auzabide batetik ere egin daiteke. Elizalde, Jauregi

(30-50) eta Jaun Donosti baserriekin lotzen du, berriro Abaltzisketa-Alegia errepidera irtenaz. Aipaturiko azken baserriari izena, inguruan dagoen San Sebastianen zaindartzapeko baseliza (30-51) batetik dator. Baseliza baino gehiago da gurutze-tokia eta Orendaingo gune nagusiarekiko muga zedarritzen du.

■ Egileor eta Astizalde

Udalerrri txiki honetako eraikuntzarik gehientsuenak biltzen dituen Elizalde gain, gunerik gorenean lekutzen dena, beste bi auzo daude: Egileor eta Astizalde. Lehenak, herriaren **hego-mendebaldean**, lbiur ibarrari begira dagoen aldea hartzen du. Deskribaturiko malda-hegaletan lekutzen diren baserrien artean bi dira aipagarriak: Urkidi (30-58) usadiozko beheko sua oraindik ere pizten duelako eta Lizarribar (30-60), gaur egun zaharberritua dagoena. Halaz guztiz ere, baditu arkitektura ezaugarri zainduak, hormaz itxitako erdi puntuko arkuak esate baterako **e.a.**

Astizalde herriaren ifar-ekialdean barna zabaltzen da, Amezketara eta Oriaren arteko ibaigurutze aldera. Baserriak Urkamendi mendiaren inguruan biltzen dira, **besteak** beste, Konde baserria (30-59) izanik aipagarriena.



San Sebastian baseliza.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

